



## **BOLUNTARIOTZAREN EUSKAL KONTSEILUA**

### **Akta**

2015eko martxoaren 27an, Eusko Jaurlaritzaren Lakuako egoitzan, goizeko 10:00ak direla.

#### **Bertaratu direnak:**

- Jose Luis Madrazo - Eusko Jaurlaritzako Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendaria
- Roberto Vidal – Bidesari. Presidenteordea
- José Antonio Cristóbal – Teléfono de la Esperanza de Álava
- Miguel Ángel Gómez – Gazteleku
- Josu Grandibal – Euskalerriko Eskautak Bizkaia
- José Alberto Vicente – Harribide Fundazioa
- Valeria García-Landarte – FEVAS
- Ricardo Sánchez – Futubide
- Natxo Arnaiz - Bolunta
- Miren Gurrutxaga – Gizalde
- Mamen Díaz de Sarralde – Arabako Foru Aldundiko teknikaria
- Rafael Hernández – Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikaria.
- Pedro Anitua – Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendaria
- Amaia Barredo – Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendaria
- Pello Telleria – Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako teknikaria
- Ramon Andrinua – Lan, Enplegu eta Gizarte Politikarako Bizkaiko Ordezkaritzako teknikaria. Idazkaria

#### **Gai-zerrenda:**

- 1.- Aurreko bilerako akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.
- 2.- Boluntariotzaren erakundeek Kontseiluan duten ordezkaritzaren hautaketa.
- 3.- 2014an egindako boluntariotza-estrategiaren ekintzak.
- 4.- 2015ean garatuko diren ekintzak.
- 5.- Kontseiluak azken hiru urteetan izan duen jardueraren balorazioa eta hobetzeko proposamenak.
- 6.- Eskaerak eta galderak.

Hitza hartu du Familia Politika eta Komunitate Garapenerako zuzendari Jose Luis Madrazok, agurra eginez eta Gizarte Politikarako sailburuorde Iñigo Pombo eta Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburu Angel Toña ezin etorri izanagatik desenkusatu. Ondoren, gainerako ordezkariak beren burua aurkeztu eta agurra egin dute, eta gai-zerrendari heldu zaio.

## **1.- Aurreko bilerako akta onestea**

2014ko urriaren 27an egindako aurreko bileraren akta onartu da.

## **2.- Boluntariotzaren erakundeek Kontseiluan duten ordezkartzaren hautaketa**

Ramon Andriuak azaldu du burutu dela Kontseilua osatzen duten erakundeen ordezkartza hautatzeko prozesua, iazko ekainaren 25eko osoko batzarrean onartu zenari jarraiki. Beraz, lehenik eta behin, urriaren 9an bidali zitzairen Boluntariotzaren Erakundeen Errolda Orokorrean inskribatuta dauden erakundeei gutun bana, Kontseilua berritzeko prozesuaren berri emanez eta harekin batera igorritik hautagaitzak aurkezteko fitxa, epea zabaldu eta urriaren 31ra arte aurkeztu zitezkeela adieraziz.

Ondoren, urriaren 23an, bigarren gutun bat bidali zitzairen, aurrekoa gogora ekarriz eta azalpena berrituz.

Hautagaitzak aurkezteko epea amaituta, Erroldan inskribatutako erakunde guztiei beste gutun bana bidali zitzairen, aurkeztutako hautagaitzen zerrenda eta boto-papera erantsiz, berriz ere hautaketa-sistema gogoraraziz eta botoa emateko epea azaroaren 17an amaitzen zela adieraziz.

56 erakundek eman dute botoa, guztira: Arabako 5ek, Bizkaiko 26k, Gipuzkoako 11k eta Autonomia Erkidegoaren eremu osoko beste 14 erakundek.

Ondorengo zerrendan ageri dira aurkeztutako hautagaitza guztiak, hautaketaren eremuaren arabera ordenatuta eta jasotako boto kopurua azalduta.

### **Araba. Tokiko eremuan lan egiten duten erakundeak**

- Denbora Bankua Elkartea. Gasteiz - 2

### **Bigarren txanda. Araba. Lurralde historikoaren eremuan lan egiten duten erakundeak**

- AGLE – Arabako Gizarte Laneko Elkartea - 1
- AGUBAE-AMAPASE – Arabako Guraso Bananduen Elkartea - 1
- SECOT – Arabako Enpresa-aholkulari Adinekoen Boluntariotza - 1
- Teléfono de la Esperanza y Amistad de Álava - 0

### **Lehenengo txanda. Bizkaia. Tokiko eremuan lan egiten duten erakundeak**

- Portugaleteko Aisialdi Sarea Federazioa Portugalete - 30

Bigarren txanda. Bizkaia. Lurralde historikoaren eremuan lan egiten duten erakundeak

- ALCER Bizkaia - 1
- Kiribil Sarea Elkartea - 14
- AVIFES - Gaixotasun mentalak dituzten pertsonen eta euren senitartekoen Bizkaiko elkartea - 3
- Bilboko Elizbarrutiko Cáritas - 5
- Bizkaiko gaztetxoaren koordinakundea - 3
- Futubide - Gorabide Fundazio Tutelarra - 6

Lehenengo txanda Gipuzkoa. Tokiko eremuan lan egiten duten erakundeak

Hautagaitzarik ez da aurkeztu

Bigarren txanda. Gipuzkoa. Lurralde historikoaren eremuan lan egiten duten erakundeak

- ADEMGI – Asociación de Esclerosis Múltiple de Gipuzkoa - 0
- AGIPASE - Gipuzkoako Guraso Bananduen Elkartea - 1
- Gipuzkoako Kirol Federazioen Elkartea - 0
- Minbiziaren aurkako Espainiako Elkartea - Gipuzkoako Batzarra - 2
- ATZEGI - 5
- DYA Gipuzkoa - Errepideko Laguntza Elkartea - 7

Hirugarren txanda. Autonomia Erkidegoa. Autonomia-erkidegoaren eremuan lan egiten duten erakundeak

- Decebal Errumania-Euskadi Elkartea - 1
- Hirigoyen laneko jazarpen moralaren aurkako elkartea - 1
- Errefuxiatuei Laguntzeko Batzordea CEAR – Euskadi - 6
- Euskadiko Gurutze Gorria - 2
- FEVAS - 9
- Euskal Herriko Down Sindromearen Fundazioa - 1
- Munduko Medikak Euskadi - 2
- NAGUSILAN - Adinekoen Gizarte Boluntarioria - 7
- SECOT - Lankidetzaren Teknikorako Adinekoak - 2
- SEO/Birdlife (Espainiako Ornitologia Elkartea) - 0
- Trebeak Eskautak Federakuntza - 17

Lantalde Iraunkorrak, abenduaren 11n egindako batzarrean, ontzat eman zuten hautaketa-prozesua.

Beraz, ezarritako irizpideen arabera, hautatu diren erakundeak honako hauek dira:

- Denbora Bankua Elkartea. Gasteiz
- Portugaleteko Aisialdi Sarea Federazioa Portugalete
- Kiribil Sarea Elkartea
- Futubide - Gorabide Fundazio Tutelarra

- ATZEGI
- DYA Gipuzkoa - Errepideko Laguntza Elkarte
- FEVAS - Adimen-urritasuna dutenen aldeko Elkarteen Euskal Federazioa
- Trebeak Eskautak Federakuntza

Arabako lurralde historikoan lan egiten duten elkarteen txandan, hiru erakunderen arteko boto-berdinketa izan da –AGLE, AMAPASE eta SECOT–, eta bi kide hautatu behar dira, beraz, berdinketa hori ebatzi behar da.

Bestalde, Gipuzkoan tokiko eremuan lanean ari diren erakundeen txandatik inongo hautagaitzarik aurkeztu ez denez, hutsune hori nola bete erabaki behar da.

Era berean, hautaketa zuzenean aukeratzen direnez gain, 2010eko azaroaren 8ko Kontseiluan erabakitako hautaketa-prozeduran esaten zenez, ordezkari berrietatik bi kargua uzten duen Kontseiluak izendatuko ditu.

Ildo horretatik, Lantalde Iraunkorrek abenduaren 11ko batzarrean erabaki zuen Kontseiluari proposatzea hiru auzi horiek ondoko modu hauetan ebazteko:

1.- Arabako hiruren arteko berdinketa ebaztea Boluntariotzaren Erakundeen Erroldan erregistratuta denbora gehien daramaten bi erakundeen alde. Erroldako antzintasuna lehenesten duen irizpide objektiboa da. Objektibotasuna bermatzen da, gainera, irizpide hori hartu zen unean ez zelako ezaguna zein ziren hiru elkarte horiek. Erroldan erregistratuta daramaten denbora begiratuta, honako hau egiaztatu da:

- SECOT Araba – 2001eko otsailaren 27a
- AGLE - 2003ko azaroaren 4a
- AMAPASE – 2013ko martxoaren 8a

2.- Gipuzkoako tokiko eremutik hautagaitzarik aurkeztu ez izanak eragindako hutsunea betetzeko, Gipuzkoako lurraldeko erakundeetatik, jasotako botoetan hirugarrena geratu den erakundea proposatzea, hau da:

- Minbiziaren aurkako Espainiako Elkarte – Gipuzkoako Batzarra

Era horretan, aurreikusitako lurralde-ordezkaritza mantentzen da.

3.- Kargua uzten duen Kontseiluak izendatu beharreko bi kontseilukideak honako hauek izatea:

- NAGUSILAN - Adinekoen Gizarte Boluntariotza
- Errefuxiatuei Laguntzeko Euskadiko Batzordea CEAR – Euskadi

Bi leku horiek izendatzeko eskumena gordetzearen helburua da gutxieneko lotura bermatzea kargua hartu eta kargua uzten duten bi

ordezkaritzen artean, egiten ari diren lanen jarraitasuna ahalbidetuz. Gainerako 11 erakundeetatik 4k Kontseiluan jarraitzen dute eta, beraz, gutxieneko jarraipena badagoela onesten da. Aukeratu diren bi erakundeak izan dira, hautatuak izan ez diren erakundeetatik, boto gehien jaso dituztenak.

Kontseiluak erabaki du hautaketa-prozesua eta Lantalde Iraunkorraren proposamena onestea. Boluntariotzaren erakundeek Kontseiluan hurrengo hiru urteetan izango duten ordezkariak honako hauek eramango dute:

- Denbora Bankua Elkartea. Gasteiz
- SECOT Araba
- AGLE
- Portugaleteko Aisialdi Sarea Federazioa Portugalete
- Kiribil Sarea Elkartea
- Futubide - Gorabide Fundazio Tutelarra
- ATZEGI
- DYA Gipuzkoa - Errepideko Laguntza Elkartea
- Minbiziaren aurkako Espainiako Elkartea – Gipuzkoako Batzarra
- FEVAS - Adimen-urritasuna dutenen aldeko Elkarteen Euskal Federazioa
- Trebeak Eskautak Federakuntza
- NAGUSILAN - Adinekoen Gizarte Boluntariotza
- Errefuxiatuei Laguntzeko Batzordea CEAR – Euskadi

José Antonio Cristóbalek adierazi du Kontseiluan jarraitzea nahi izango zukeela eta inguruabar hori aktan jasotzeko eskatu du.

Roberto Vidal lehendakariordeak adierazi du Kontseiluko kide guztien lana garrantzitsua izan dela, guztien lana balioesten dela eta boto gehiago edo gutxiago jaso izanak ez duela aldarazten balioespen hori.

José Luis Madrazok, Gobernuaren izenean, orain arte Kontseiluko kide izan diren pertsona guztiei egin duten lana eskertu die.

### **3.- Boluntariotza-estrategiak 2014an egindako ekintzak**

Roberto Vidalek azaldu ditu 2014an zehar egindako ekintzak. Argitu duenez, zenbait ekintza bertan behera geratu dira, haien planteamendua oraindik guztiz ondu gabe zegoelako, eta 2015era atzeratu dira.

1.- Boluntariotzaren hiztegi terminologiko eta kontzeptualaren aurkezpena eta zabalkundea. Kontzeptuak zedarrizteko mintegiak definizio terminologiko argiak eman ez zituenez, haren ondorioz espero zen hiztegia aurrerago egiteko geratu da.

2.- Boluntariotzaren gizarte-erakundeetako komunikazio-arduradunekiko topaketa. Diseinatu zenari jarraiki, hiru topaketa egin ziren, bana lurralde bakoitzeko: Bizkaian, maiatzaren 20an, 14 erakunde zirela bertan; Gipuzkoan,

maiatzaren 21ean, 20 erakunde elkartuta, eta Araban, maiatzaren 22an, 11 erakunderekin. Ondoren, ekainaren 26an, guztien arteko batzarra egin zen. Batzar haien ondorioak biltzen zituen *Gizarte-eraginaren bila: gizarte-erakundeen kanpo-komunikazioa optimizatzeko estrategiak eta tresnak* izeneko txostena posta elektronikoko bidez bidali zitzaien Kontseiluko kideei, eta webgunean plazaratu zen.

3.- Komunikabideekiko lehenengo topaketa boluntariotzaren bistaratzeari buruz. Lurraldeko saio bana, hiru saio egin dira kazetariekin, abenduaren 16, 17 eta 18an. 58 erakundetako ordezkariak parte hartu zuten: 23 Bizkaian, 23 Gipuzkoan eta 11 Araban. Bertan izan zirenek oso ondo balioetsi zuten topaketa, eta denbora labur barne zabalduko dira ondorioak.

4.- Eusko Jaurlaritzaren boluntariotzaren webgunea eguneratzea. Urte osoan zehar. Erroldan inskribatutako erakundeen zerrenda eguneratu da eta informazioak jarri dira, Enplegu Sailaren eta Ingurumen Sailaren dirulaguntzei buruz, Debako boluntariotza-sareari buruz, Europar Batasunaren Erregelamenduaren gaineko informazioa, Giza Laguntzarako Gorputzaren sorrerari buruz, eta eseki egin dira *Euskal Boluntariotzaren Estrategia: 2013-2016* izeneko dokumentua eta 2014an egindako ekintzen inguruko dokumentuak.

5.- Autonomia Erkidegoko hiru udalerritan boluntariotzaren praktikari eta partaidetza sozialari buruz egindako ikerketa. Ikerketa ia erabat amaituta dago. Bilbon egin da, Bilbo zaharra barrutian, Gasteizko Zabalgana auzoan, eta Urretxu-Zumarragan. Denbora labur barne aurkeztuko da.

6.- Boluntariotza adinekoen artean sustatzeko kanpaina. *Boluntariorik?* antzezlanak aurkeztu da hiri hauetan: Getxon, azaroaren 16an; Errenterian, azaroaren 21ean; Bilbon, abenduaren 5ean; Eibarren, abenduaren 9an, eta Oionen, abenduaren 13an. Aurretik, azaroaren 8an, Agurainen egin zen entsegu orokorra, publikoari zabalik.

7.- Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna: boluntariotzako erakundeen aintzatespen-ekitaldia. Ez da egin.

8.- Gizartean parte hartzeko era berrien inguruko mintegia. Ekintza hori 2015erako atzeratzea erabaki da, eta koordinatzea ospakizun hori eta *Autonomia Erkidegoko hiru udalerritan boluntariotzaren praktikari eta partaidetza sozialari buruz egindako ikerketa* izeneko txostenaren ondorioen aurkezpena.

9.- Boluntarioen prestakuntza. Ekintza hori tokiko boluntariotzari eta gizarteko parte hartzeari begira pentsatua da, baina erabat eratu gabe dagoenez, ez da aurrera eraman, eta 2015erako atzeratu da.

10.- Topaketak Akitania Eskualdeko Boluntariotzaren Kontseiluarekin Ez da egin eta 2015erako atzeratu da.

11.- Gizartegintzako hirugarren sektoreari buruzko Legearen osaera-prozesuan parte hartzea, ekintza boluntarioaren beharrezko presentzia bermatzeko. Parte-hartze hori Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren urriaren 27ko batzarraren deialdiaren bidez burutu zen, hango gai nagusia Lege horren aurreproiektua izan baitzen.

#### **4.- 2015ean garatuko diren ekintzak**

9. ekintza.- Xabier Bañuelosi eskatu zitzaion erakundeen komunikazioari laguntzeko plan bat egiteko, eta hori aurkeztu zuen, aurrean garatzeko asmoz, orain arte egindakoaren ildotik jarraitzeko. Lanerako planak lau helburu ditu:

- Gizarte-erakundeetan kanpoko komunikazioaren ardura duten pertsonen arteko topaketa antolatzea eta gogoeta egitea.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak integratzea, eta batez ere Internet eta hark eskaintzen dituen tresnak, komunikazio-bidea errazten digutelako.
- Komunikazioa erakundearen eginkizunaren zehar-lerro gisa ulertzea eta kanpoko komunikazioa planifikaziotik kudeatzen ikastea.
- Ikus-entzunezko komunikabideetako elkarriketa prestatzea gure mezuak zabaltzeko oinarrizko tresna gisa.

Helburu horiei begira hiru jarduera egingo dira:

- IKTei buruzko lan-saioa. Saio bana lurralde historiko bakoitzeko, 4 orduko iraupenez. Bilbon maiatzaren 11n, Donostian 12an eta Gasteizen 13an.
- Komunikazioaren plangintzari buruzko tailerra. Saio bana lurralde historiko bakoitzeko, 4 orduko iraupenez. Bilbon ekainaren 8an, Donostian 9an eta Gasteizen 10ean.
- Elkarriketa-tailerra. Saio bana lurralde historiko bakoitzeko, 5.30 orduko iraupenez. Bilbon azaroaren 23an, Donostian 24an eta Gasteizen 25ean.

10. ekintza.- Eusko Jaurlaritzaren boluntariotzaren webgunea eguneratzea. Urte osoan zehar.

12. ekintza.- Autonomia Erkidegoko hiru udalerritan boluntariotzaren praktikari eta partaidetza sozialari buruz egindako ikerketaren aurkezpena. Egun batzuen buruan amaitzea aurreikusten da. Ondoren, aurkezpena egingo da.

15. ekintza.- Boluntariotza gazteen artean sustatzeko kanpaina. Ekintza bateratu bat prestatzen ari da Eusko Jaurlaritzaren Gazteriaren Zuzendaritzarekin, Gazteriaren Euskal Kontseiluarekin eta Eusko Jaurlaritzaren Familia Politika eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzarekin.

17. ekintza.- Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna ospatzea. Lehendakaritzan indarra hartzen ari da boluntariotzari aitortza eskaintzeko ekitaldi instituzional bat egiteko ideia.

18. ekintza.- Ikastetxe eta unibertsitateetan sentsibilizazioa sustatzeko etengabeko programa. Boluntariotzaren agentzien ekimenez Gipuzkoan eta Bizkaian aspaldi egiten diren praktiketako esperientziak erabiliko dira. Asmoa da hezkuntza-sistema nolabait inplikatzeko. Badugu komunikazioa Hezkuntza Sailarekin, eta lotunetzat har daiteke balio zibiko, sozial eta etikoen inguruko ikasgai etorkizunekoak.

23. ekintza.- Euskal boluntariotzaren eta partaidetza sozialaren topaketa. 2016an egitea proposatu da, eta aurten hura prestatzen hasteko batzorde bat eratzea.

25. ekintza.- Gizartean parte hartzeko era berrien inguruko mintegia. Autonomia Erkidegoko hiru udalerritan boluntariotzaren praktikari eta partaidetza sozialari buruz egindako ikerketaren ondorioak ikusita zehaztuko da.

27. ekintza.- Partaidetzako ekimen berriak abian jartzeko proiektu-lehiaketa. Ikerketaren ondorioak ikusita zehaztekoa.

28. ekintza.- Boluntarioen prestakuntza. Boluntarioei eskaini beharreko prestakuntzaren inguruko analisi bat egitea komeni ote den gogoeta egiten ari da; eta orobat, sentsibilizazio eta kontakturako lehenengo jardunaldi bat egitea, hurrengo hauteskundeetatik ateratzen diren tokiko hautetsi berriei.

31. ekintza - Topaketak Akitania Eskualdeko Boluntariotzaren Kontseiluarekin Zehazteko dago.

Boluntariotzak Autonomia Erkidegoan duen egoerari buruzko urteko txostena. Boluntariotzari buruzko 17/1998 Legearen arabera, txosten hori egitea Kontseiluaren eginkizunetako bat da. Proposamena txosten-eredu bat prestatzea da, gehienez 15/20 orrialdekoa, urtearen amaieran osatu eta hurrengo urteetan berritzeko modukoa.

Ekintza hauek egiteko aurrekontua 97.000 eurokoa da, 2014ko ekintzetarako aurreikusten zen kopuru bera.

Azaldutako ekintzen planteamendua onartzen da.

## **5. Kontseiluaren azken hiru urteetako jardueraren balorazioa eta hobetzeko proposamenak**

Roberto Vidalek adierazi du gai-zerrendaren atal honen asmoa dela Kontseiluko kideek bertan egon diren aldiaren izandako jardueraren eta funtzionamenduaren inguruan egiten duten balorazioa jasotzea, hurrena eratuko den Kontseiluari helarazteko.



Pello Telleriak aipamena egin eta eskertu nahi du Roberto Vidalek, José Alberto Vicentek, Miguel Ángel Gómezek eta Maite Fernándezek Lantalde Iraunkorrean egin duten lana.

José Alberto Vicenteren iritziz, oso egokia da Lantalde Iraunkorra izatea, Kontseiluak erabakitzen dituenak aurrera eramateko. Horrez gain, Kontseiluko kide zenbaitek inplikazio eskasa erakusten dutela eta parte-hartzea bizkortu eta areagotu behar dela esan du.

Miguel Ángel Gómezek adierazi du gustukoa izan duela Kontseiluaren eta Iraunkorraren barruko esperientzia, eta bat datorrela Lantalde horren egokitasunari buruz esandakoarekin, taldeko kideen lana eta inplikazioa eskatzen badu ere. Gainera, haren aburuz, azken sei urteetako jardunbide egokia izan da idazkaritza teknikoaren Gobernuko langileek eramatea, lehen bezala kanpoko eragile batek eraman beharrean. Zapora gazi-goza uzten dio tokiko erakundearen ordezkariak eta balorazioa hain eskasak izatea, izan ere, argi ikusi baita Hirugarren Sektoreko Legearekin, bestelako entitateak sustatzen baititu. Erroka bat lortu gabe geratu dela dio: tokiko erakundeak balioetsiak izatea.

Jose Luis Madrazok nabarmendu du erakundeetako ordezkarien jardunbide ona, nola batzarrean hala iraunkorrean ere. Interesgarria iruditzen zaio jardunbide arruntean Lantalde Iraunkorrak izan duen ahalmen exekutiboa, eta garrantzitsutzat jo du hor agendak lantzea. Tokiko erakundearen balorazioaren inguruan eman diren iritziei buruz, berriz, haien garrantzia beste erakunde guztien maila berean aitortzen dela baieztatu du, baina bakoitzak bere erreferentziako eremua eduki behar duela.

Roberto Vidalek zoriondu ditu Kontseilua uzten duten kide guztiak egin duten lanagatik. Berari dagokionez, esker onez ikusten ditu Kontseiluko lehendakariordetzan emandako urteak, Gobernuaren makineria eta bertan lanean ari diren pertsonak hurbiletik ezagutzeko aukera eman diotelako. Gogora ekarri ditu jardun eta ahalegin biziko uneak, esaterako Boluntariotzaren Estatuko Kontseilua antolatu zenekoa, baina guztietan ere lanean ondo sentitu dela argi utzita.

Rafael Hernándezek gogoeta egin du boluntariotzaren inguruan, beti artatzen duen kolektiboaren baitan itzalita edo ezkutuan geratzen dela esanez, nahiz eta, haren hitzetan, horixe den, hain zuzen ere, boluntarioak nahi duena: protagonista ez izatea. Haren irudiko, Kontseiluak ez du zentzurik haren edukien transmisioa egiten ez bada, eta horretarako beharrezkoa da lurraldeko kontseiluak eratzea. Azkenik, orain ordezkariak uzten dutenen lana eskertu du.

Natxo Arnaizek adierazi duenez, Kontseiluak beti eduki du boluntariotzaren sustapenean lan egiteko borondatea, eta hala egin du, ahaleginak eta ondo edo oker egindakoak gorabehera. Hala ere, haren iritzirako, badira ahulezia zenbait: errolda, egituratuta dagoen eran, kidea izateko hautaketa-prozesua, eta une batzuetan izaten den instituzioen presentzia eskasa. Gainera, kontuan hartu behar da boluntariotza, berez, pisua galtzen ari dela gizartean, gobernantza eta partaidetza bezalako terminoen

aldean. Guztiei adorea helarazi nahi izan die boluntariotzaren sustapenean aurrera jarrai dezaten, erronka handia da-eta.

José Luis Madrazok ere aipatutako ildoetatik lanean jarraitzeko animatu ditu, eta eskerrak eman dizkie egindako lanagatik eta Kontseiluko kideen artean izan diren elkar-ulertze eta lankidetzagatik.

## **6.- Eskaerak eta galderak.**

Ez da galderarik, ez eskaerarik egon.

Beste gairik ez izanik, bilera amaitutzat eman da 12:00etan.

O.E.:

Ramon Andrinua

José Luis Madrazo jauna.